

Bide jakin bati  
segitzen noiznai norabait  
denpora behera.

J. Azurmendi

## OTOITZA

Zu bezain altsu banintza ni,  
Jauna, ez litzake munduan  
tristurarik izango, ez litzake  
ume itsurik jaioko,  
ez litzake maitasuna nekatuko,  
ez litzake ilunbea triste izango  
eta tristeago argia,  
eta ni Zu bezain ona benintza  
onago izango nintzake Zu baino;  
Jauna, ez nuen andre konkordunik egingo,  
ta ez umerik hiltzen utziko  
ta ez erririk agonian  
ta ez begien argirik zahartzen  
ta ez amarik aur hila bihotzaren gainean  
duela bakarrik abandonatuko.

Eta etzuen bere buruaren gainean neska batek  
nire anaiagati alferrik negar egingo.

Etzan mundu au olakoa izango, ez,  
eta guk dakigu hitz onek esaten ez duen  
zer esango lukean gure hitza zure justizia balitz.

Izango baitzan nire hitza zurea ez bezalakoa,  
eta etzuen kreatura galdu baten oihartzun banala  
urik ez daukan desertuan sortuko,  
ta ez nuen olakoa egingo hitza  
gizonok gurutzera eramanaren kulpa izatekoa.

